

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

176/2023 Foru Agindua, azaroaren 20koa. Behin betiko onespena ematea Gaubeako HAPO hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketari

2023ko uztailaren 21ean, Gaubeako Udalak hasierako onespena ematea erabaki zuen hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketari, eremua berriz mugatzeko eta bi jabetza publikoren kalifikazioa aldatzeko, bai eta hura 20 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea ere. Horretarako, iragarkiak jarri ziren 2023ko abuztuaren 4ko ALHAOn (91. zk.) eta 2023ko uztailaren 31ko "El Correo" egunkarian.

Jendaurrean jartzeko epean ez zen alegaziorik aurkeztu. Udalak behin-behinean onetsi zuen espedientea 2023ko irailaren 29an, eta Arabako Foru Aldundiari igorri zion, behin betiko onets zezan.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2023ko urriaren 5eko sarrera datarekin, Gaubeako Udalak espedientea igorri zuen, behin betiko onets zedin. Espedientea aztertuta, dokumentazioa falta zela ikusi zen, eta horren berri eman zitzaion Gaubeako Udalarari 2023ko urriaren 10ean. Dokumentazio gabezia zuzendu ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2023ko urriaren 23ko sarrera datarekin, Gaubeako Udalak espedientea igorri zuen, behin betiko onets zedin.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. HAPOaren aldaketaren xedea da Uribarriko hiriguneko udal jabetzako 2 lurzoruren kalifikazio xehatua aldatzea, gaur egungo erabilerekin egokitzeko. Zehazki, 14 poligonoko 102 eta 106 lurzatiekin mugakide den lurzoru publikoa da, eta etxebizitza bloke batzuk daude han. Etxebizitza horiek kanpoko espazio publiko bat osatzen dute, "plaza" itxuran, blokeen aurrealdean, elizaren kalearen ondoan, eta ibilgailuentzako aparkaleku bat blokeen atzealdean. Bi lurzoru horiek, zeinak egun biltzeko eta aparkaleku gisa erabiltzeko espazio publiko libre gisa balio dute, kalifikazio berria dute. Gaur egun, lurzoru horren azalera guztia blokean dagoen etxebizitza gisa kalifikatuta dago, eta ez da bereizten zer den lurzoru publikoa eta benetan zenbat okupatzen duten orain dauden etxebizitza blokeek. Aldaketak proposatzen du lurzoru publikoa Espazio Libreen Tokiko Sistema gisa kalifikatzea, "plaza" itxuran aipatutako blokeek osatuta, eta aparkalekuak okupatutako lurzorua Komunikazioen Tokiko Sistema gisa. Horiek horrela, aldaketak ez dio arau testuari eragiten; izan ere, kalifikazio xehatuko plano berri bat eta Uribarriko OP1 garatu eta gauzatzeko baldintzak baino ez ditu jasotzen, aipatutako sistema lokalekin, lurzoru hori bloke motako bizitegi etxebizitza gisa kalifikatzen zuen planoaren ordez.

Bigarrena. Dokumentu teknikoak aldaketa justifikatzen du espazio publikoak haiei dagozkien erabilerekin kalifikatzen direlako.

Hirugarrena. Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak espedientearen aldeko txostena eman zuen 2023ko abuztuaren 3an.

Laugarrena. URA Uraren Euskal Agentziak, 2023ko irailaren 21ean, jakinarazi zuen ez zuela egin kontuan hartu beharreko oharrik.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2022ko martxoaren 15ean jakinarazi zuen aldaketa ez dagoela ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozeduraren mende.

Seigarrena. Agiria aztertu ondoren, sinatu duen teknikariak uste du justifikatuta daudela egin nahi den aldaketaren aukerakotasuna eta egokitasuna.

Horregatik, eta dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onespena ematea Gaubeako hiri antolamendurako plan orokorren 2. aldaketaren espedienteari. Aldaketaren helburua da Uribarri Gaubean blokean dagoen etxebizitza eremua berriz mugatzea eta eremu horretako bi jabetza publikoren kalifikazioa aldatzea.

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 20a

Lurralde Orokorraren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Gaubeako hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa, Uribarri Gaubean blokean dagoen etxebizitza eremua berriz mugatzea eta eremu horretako bi jabetza publikoren kalifikazioa aldatzea helburu duena, Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan inskribatu zen 2023ko azaroaren 23an, 2023/24 erregistro zenbakiarekin.